

## **1996ko OTSAILAREN 7ko URJENTZIZKO BILKURA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamaseiko otsailaren zazpian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Inaxio Olaetxea Karrera, Ima Zubeldia Luloaga, Julian Zubeldia Aierbe, Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz, eta Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **URJENTZIZKO BILKURAREN ARRAZOIA:**

Alkateak hitza harturik dio: Tratatu nahi diren gaiak benetan presazkoa direnez, Bilkura honetan, urjentziz gai hauek tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

### **1.996KO MARTXOAREN 3KO HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO, HAUTESKUNDE MAHAIAREN OSAKETA**

Hauteskunde Arauen 26. artikuluan zehaztutakoa eta ezarritako arau guztiak bete ondoren, udalbatza honek aipatzen diren Hauteskunde Mahaia eratu du, aipatzen diren pertsonekin eta zehazten diren karguetarako:

ATALA: 1

MAHAIA: 1

### **TITULARRAK**

MAHAIBURUA: PORTU ZUMETA, ARRATE  
1. MAHAIKIDEA: ZUBELDIA AIERBE, NEKANE  
2. MAHAIKIDEA: ZUBELDIA ALTUNA, ONINTZA

### **ORDEZKOAK**

MAHAIBURUARENA: AZPIROZ BELDARRAIN, AITOR  
MAHAIBURUARENA: MENDIZABAL MURUA, JUAN M<sup>a</sup>  
1. MAHAIKIDEARENA: BALERDI URDANPILLETA, AGURTZANE  
1. MAHAIKIDEARENA: BALERDI URDANPILLETA, ARANTXA  
2. MAHAIKIDEARENA: OTXOTORENA UHARTE, JUANA M<sup>a</sup>  
2. MAHAIKIDEARENA: LULUAGA ALTUNA, AITOR

### I.A.A. HERRITAR GAZTEA, ERASO SEXUAL BATETAZ AKUSATUA IZAN DELA ETA MOZIOA

I.A.A. herritar gaztea, eraso sexual batetaz akusatua izan dela eta Lizartzako Herri Asanbladak onartutako erabakia aurkezten da, bere onarpenerako, eta hitzez hitz, honela dio:

#### **ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE !!**

Lizartzako herritarra den I.A.A., 18 urteko gaztea, eraso sexual batetaz akusatua izan dela eta, Herri Asanblada bat burutu da gertaera honi erantzuteko asmoarekin.

Gertaera nazkagarri hau gogorki gaitzesteaz gain Asanbladak salaketa bera kaleratzea erabaki du, edozein herritar ere salatzaile bihurtu dadin. Gainera, erasotua-rekiko eta moeta honetako biktimeekiko elkartasuna adierazi nahi dugu.

Era berean, gazte honen aurretikoak ezagututa, hots, eraso hau kasualitate hutsa ez dela eta, bere portaera psikopatikoak tratamendu berezia merezi duela uste dugu; sendabidean behar diren bitartekoak hartzea aholkatzen diegu bere senitartekoei.

Aurrerantzean, espero dezagun gazte honek, Asanblada honi biltzeko hau bezalako arrazoirik ez ematea.

Lizartzako Herri Asanbladak onartutako mozioa sakonki eztabaidatuz gero, Udal Batzar honek, Lizartzako Herriaren Aldeko, MANUEL BARRIOLA TOLOSA eta JOSE ARZADUN EGILUZ Udalkideak abstenitu egiten dira; RAMON BENGOETXEA ALTUNA Udalkidea, mozioaren lehenengo bi puntuak ez ditu onartzen, gainentzekoekin ados dagoelarik; eta Herri Batasunako lau Udalkideen aldeko botoekin, onartua izan da.

Udalaren aldetik bere laguntza emateko, familiarekin harremanetan jarri eta bere egoeraren jarraipena egitea proposatu da.

Manuel Barriola eta Jose Arzadun Udalkideek abstenitu egiten dira; eta gainontzeko bost uldakideek aldeko botoa ematen dutenez, proposamena onartzen da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,